

EUDELeK Gardentasunaren Aldeko Euskadiko Udalen Sarearen sorrera sustatu du

- Sarea gaur, urtarrilaren 30ean (asteazkena), eratu da EUDELen egoitzan, eta talde pilotua osatzen duten 24 udaletako alkateek eta bestelako politikari eta teknikariek hartu dute parte.
- EUDELeK lehentasunezkoztat jo du estrategia eta lan bateratua ahalbidetzea, Euskadiko tokiko gobernuen gardentasuna zabaltzeko eta egonkortzeko.
- Taldeko dinamiken abiapuntua diagnostiko eta metodologia baten diseinua, praktika onen trukea eta materialen prestaketa izango dira; izan ere, horrek lagundu egingo die Euskadiko udalei arlo honetan aurrera egitera, bakoitzaren hasiera-egoeratik abiatuta.

Asteazkena, 2013ko urtarrilaren 30a. EUDELeK Gardentasunaren Aldeko Euskadiko Udalen lehen Sarearen eraketa sustatu du. Diagnostikoa egiteko, praktika onak trukatzeko eta Euskadiko udalen estrategia bateratua garatzea ahalbidetuko duten laguntza-ekintzen espazioa izango da Sarea, euskal herritarrei tokiko administrazio gardenagoak eta irekiagoak eskaintzeko.

EUDELeK lehentasunezkoztat jo du udal ezberdinen artean lankidetzarako estrategiak sustatzea, hain zuzen ere, gardentasuna oinarri-oinarritik sartzeko, hau da, erakundetik bertatik eta barne kudeaketatik. “Errotiko” lan horrek herritarrenganako harreman errazagoa eta hurbilagoa ezartzea ahalbidetuko du, beharrezko kalitatezko zerbitzu publiko eraginkorrekin erantzun ahal izateko.

Lehenengo fasean, sarea **hiru lurraldeetako 24 udaletako talde pilotu batek** osatuko du. Udalak gai honen gainean erakutsitako interesaren eta euren erakundeetako gardentasunaren garapenean duten esperientziaren arabera hautatu dira.

Sarea udal parte-hartzaileek ezagutzak, praktika onak eta estrategiak **trukatzeko espazio** gisa eratu da.

Helburua da udalei gardentasunaren bidean aurrera egiteko jarraitu beharreko urratsak zeintzuk diren jakinaraztea, betiere, euren abiarazte egoera aintzat hartuta. Horregatik, taldeko dinamikek, lehenik eta behin, diagnostikoa eta metodologia jakin baten diseinua izango dute helburu, ondoren, ekintzak garatzeko materialak eta tresna praktikoak orientatzeko adierazle gisa baliatzeko.

Gardentasunaren Aldeko Euskadiko Udalen Sarea

Ekimen honen helburua da sarean parte hartzen duten udalek lortutako aurrerapenak eta bideratutako ekintzak Euskadiko gainerako udalerrietara zabaltzea, udal gehiagok foroarekin bat egin dezaten eta, epe laburrera, Gardentasunaren Aldeko Euskadiko Udalen Sarea osatu ahal izateko.

24 udalek osatutako talde pilotua:

Bilbao, Donostia-San Sebastián, Vitoria-Gasteiz, Abanto Zierbena, Amurrio, Arrigorriaga, Barakaldo, Basauri, Derio, Eibar, Elgoibar, Ermua, Etxebarri, Galdakao, Güeñes, Getxo, Guardia, Txorierrieko Mankomunitatea, Mungia, Portugalete, Santurtzi, Ugao-Miraballes, Hondarribia, Irun.